

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Proiektua aurrera ateratzeko, pausu batzuk bete behar dira. Enpresa batean funtsezko baliabideak daude. Alde batetik **baliabide fisikoak** behar ditugu. Instalazioak beharrezkoak dira hau da, areto edota lantegi bat. Bulegoa ere beharrezko da, **bezeroekin harremanetan egoteko** eta erabaki estrategikoak hartzeko. Bestalde, ibilgailuak behar ditugu gure produktuak garraiatu ahal izateko, baina gure kasuan, **Aero Ferr** enpresarekin lanean ibiliko gara. Edonola ere, makinak behar ditugu, hau da, inpresora 3D ak produktua ekoizteko.

Gure taldekideek hainbat indargune dituzte. Alde batetik Laurak, izugarrizko sormena du. Berak, arazo baten aurrean, soluzio azkar bat aurkitzeko erraztasuna du eta hau, enpresa batean, laguntzen duen **faktorea** da. Halaber, sormena, gure lanean laguntza asko ematen duen faktorea da, izan ere, produktu berriak ekoizterako orduan, lagundu egiten du. Gainera, arazoak aurreikusteko ahalmena du beraz, akats gutxiago egingo ditugu.

Horrez gain, Nahia, ezagutzak dituen partaide bat da. Beste enpresa batzuetan esperientzia asko izan du. Enpresa berri bat denez, beraren laguntza, beharrezkoa izango zaigu. **Kontabilitatean** gaitasun handia du, enpresaren **diru fluxua kontrolatuko** du.

Era berean, Luka gaitasun **komertzialak** dituen partaidea da. Marketin gradu bat egin zuen. Beraren metodo eta espezializazioaren bidez, enpresarentzako bezero berriak ekarriko dizkigu eta dituen lidertza gaitasunen ondorioz negozioa aurrera aterako dugu. Enpresaren burbuina da.